

# LEIURIETA ETA LEIZANABAR XIII. MENDEAN



ondarribian Erdi Aroko ageririk urri dira. Baina begiz joa nuen Jaizkibelen gutxienez Eneolitos garaiko azternategiak nabari direla.

Trikuarri eta harrespilak ditugu horren lekuko.

Orain arte XIV. mendeko ageri idatziak genituen, Jose Maria Lakarra historiagile nafarrak 1956. urtean Donostian eman zituen bi hitzalditan agerrarazi zituen lekukotasunetan aipatuak. Eta handik urtebetera J. Urkixo Mintegiak argitara emana, *Vasconia medieval, historia y filología* izenburuz, eta liburuxka horren 19. orrialdean datoz 1371. urtean Aralarko San Miguel Excelsisko abereak, negu partean, Hondarribiara ekartzen zituztela, Jog zeritzen larradietako, Mugintza, Adialobe, Gaiztarrotz, Leiurieta eta Leizanabar deitzen ziren tokietara.

Horietatik, gaur oraindik ezagunak zaizkigu Jaizkibel mendiaren ifarraldean Gaztarrotz, leiurieta (Leuta) eta Leizanabar toki-izenak. Eta gure mende honetara arte iraun du aintzinatik, edo hobeto esan, historia aurretik urtarozko larradi aldakuntzaren ohitura horrek.

Euskaltzaindiaren *Euskera*, XXXIII, 1988, agerkariaren 261-271 orrialdeetan «Jaizkibel mendiko izenzahar batzuk» izenburuz eman

nuen artikuluan, beste zenbait berriren artean, eman nuen horien berri.

Orain beste argibide bat berritu beharra dut, zeren Jose Goñi Gaztanbidek 1997an argitara eman duen *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona*, lehen tomoaren 476. orrialdean dioenez, Migel Gazteluk Aralarko San Migel santutegiari itzuli omen zizkion 1230. urtean Leiurieta eta Leizanabar zeritzen sarioiak. Testuak honela dioenez: «Sepan todos aqueylos que esta carta verán, que yo don Mi-

guel de Gaçtelu dexo a San Miguel de Çelsis sus bostaliças Leyurieta eta Leiçanavar, que las tenía forçadas. Que non demande ninguna generatió que de mí sea...»


J. Goñi Gaztanbidek ez du esaten leku-izen horiek non ziren. Nonbait, ez da o h a r t Hondarribikoak zirenik. Baina gauza ziurra da Jaizkibelgoak direla.

Leiurieta, orain laburturik Leuta bezala ezagutzen da. Aldiz, Leizanabar, laburpenez zein al d a k u n t z e z gutxienez zortzi eratara jasoa dut. Gehienetan antz



Leiurieta, Harpeko horma

ematen zaio izen bera dela eta zalantzak baztertzeko esaldi zaharrak onak dira; Hondarribian bertan jasoan dudana esaldi bati



Leizanabar, Harpeetariko bat

esker argi dagoela iruditzen zait. Adibidez, Xabier Aranburu adiskideak esan didanez, euren etxean anai-arreba arteko haserren bat

zutenean, amak esaten omen zien: «Zoazte, bata Esteuzera eta bestea Leizanabarrera». Esaldiok, gehienetan, lehengo berez gordetzen baitute antzinatiko jatortasunez.

Bai Leiurietan eta baita Leizanabarren ere, geologian *taffoni* deitzen diren harpeetan noizbait horma eraikiak izan ziren aztarnak ageri dira, orain eroritak daudenak, Aralarren Telesforo Aranzadik ikertu zituenen eraikoak, noski. Ikus, «Apriscos recientes á modo de Tholos prehistóricos en el Aralar navarro», RIEV, tomo X, 1919, 72-82 orrialdeak.

Diferentzia bakarra, horiek landu gabeko harri arruntez eraikiak zirela eta Jaizkibelgoak harlanduzkoak, *opus poligonale* hormen taxuraz eginak. Baina, horma horiek katalogatzean Erdi Arotik haruntza ezin gara joan. *Taffoni* harpe horien solairuetan aurkitu izan ditudan *silex*-ak, suharrizko tresneria, eta Aranzadi Zientzia Elkartekoei eman nizkioen. Ikerketak agertzen dutenez, tipologia Neolitoskoak direla erakusten omen digute. Horren arabera, antzinatiko abelzaintzaren lekukotasunerako duten balioaz ohar gindezke.

Xehetasun gehiagoz emango bada, guzi horrek idazlan luzeago bat eskatzen du eta hala prestatu dut *Boletín de Estudios del Bidasoa* «Luis de Urantz» urtekarirako.

JUAN SAN MARTIN

**JON ALZAGA**

URDAI-AZPIKOAK  
HESTEKIAK  
GAZTAK  
FOIES  
EDARIAK

San Pedro Kalea, 25 • Telf.: 64 44 70  
HONDARRIBIA



**JAVIER**  
OPTIKO

DIPLOMADO EN ÓPTICA Y OPTOMETRÍA  
MASTER EN OPTOMETRÍA CLÍNICA  
LENTES DE CONTACTO

SAN PEDRO, 6  
TEL Y FAX 943 64 37 75  
20280 HONDARRIBIA

**OTXOAN**  
JANARIDENDA

BARAZKI, FRUTA ETA  
HORRELAKOETAN  
AUKERA HANDIA

San Pedro, 43  
Telf.: 64 16 84